

IBILBIDEA: TURTZIOZ – KOLITZA – GARBEA – BALMASEDA.

Turtziozko Villaverdeko FEVEren geltokitik gertu dagoen zentral elektriko txiki baten ondoan emango diogu hasiera txangoari. Zentralaren ondoan eraikin batzuetara eta trenbidera igotzen den hormigoizko pista bat dago. Trenbidea pasatu eta tarte luze batean pista jarraituko beharko dugu. Baserri batzuen ondotik pasatu ondoren, lehengo bidegurutzean eskuinekotik segituko dugu, beti hormigoizko bidea jarraituko dugu. Hego norabidean goaz, atzean Villaverdeko Harana eta Jorrios mendizerra daude. San Miguel eta Untzilla mendien Mendebaleko isurialdean gaude. Hegoaldera Kolitza eta tontorreko baselizaren irudia ikus dezakegu. Laster beste bidegurutze baten aurrean gaude, oraingoan ezkerrekotik joango gara eta hurrengoan eskuinekotik El Covaron parajea aurrietan dauden eraikin batzuetara iritsi arte.

Hemen hormigoizko pista utzi eta ezkerrean doan hartxingarrazko pista zabala jarraituko dugu. Ezkerrean doan bihurtze itxi batean bide bat dago, orain pista utzi behar dugu eta Untzillaren hegiko pinudian barneratzen den bide honetatik joango gara. Aurrerago berriro pistarekin bat egiten du eta hortik jarraituko dugu. Bideak lurraren bihurtze eta birak egiten ditu eta batzuetan gure helburutik urruntzen ari garela dirudi. Untzillaren ondoan dagoen lepora iritsiko gara.

Pista jarraituko dugu gero eta gero eta gertuago dagoen Kolitza mendirantz. Kolitzaren tontorpera iritsi aurretik bide ertzean dagoen iturri baten ondotik pasatuko gara. Behin goialdeko lepo honetan igoerako azken partera doan eskuineko bidea hartuko dugu. Bide nabarmenak azken aldapa gogor hau sigi-sagak eginez gaituzten du Kolitzako (879 m) tontor eta baselizaraino.

Garbeara joateko zidor beretik jaitsiko gara, baina jaitsieraren erdialdean eskuinerantz jaisten den eta lepora doan bidea segituko dugu, eskailerak dituen zati bat aurkituko dugu. Bide honek goiko lepotik datorren pistarekin bat egiten duen tokian Kolitzako iturria dago. Pista pasatu eta eskailerak dituen zidorra jarraituz baltsa txiki batera eta Campo del Espino lepora iritsiko gara.

Hemendik aurrera hainbat antena dituen Garbeako tontorrera zuzenduko gaituen mendi-bizkar luze bat jarraitu behar dugu. Bizkar honen lehenengo partean La Ginea gainetik pasatu eta La Porqueriza atsedenekura jaitsiko gara. Gero aldapa motz bat gaituzten eta apenas desnibela duen Los Campazos parajea gora segituko dugu. Pico del Mojon tontortxo pasatuko dugu. Garbeako antenak ez dira ikusten ia tontorrean bertan egon arte. Azken partean bidea utzi eta malda belartsuan gora zehar batzuk dituen muinora igoko gara, Garbea mendiko bi tontorretako bat. Gertu dauden antenaraino segituko dugu eta hauetako baten ondoan Garbeako (717 m) buzoia eta erpin geodesikoa dago.

Balmasedara jaisteko antenen aurrean dagoen pistaren zabalguneraino bueltatuko gara. Hemen, PRaren zutoi baten ondoan, ezkerrean maldan behera jaitsi behar da. Zertxobait beherago bide batera iritsi eta PR markak jarraituko ditugu. Bidean dagoen iturri baten ondotik pasatuko gara eta pixka bat aurrerago alanbre-hesia pasatu ahal izango dugu lasterbide motz bat hartzeko. PRA segituz hainbat bide dituen bidegurutze batera iritsiko gara. Eskuineko pista zabaletik jarraitu behar da. Beherago muino belartsu bat ikusten da eta bertarantz jaitsi behar da. Hormigoizko pista batera iritsiko gara eta beretik muinoa zeharkatuz eskuinerantz joango gara. Bi baserri topatuko ditugu eta bigarrenaren ondoan aldapa handiko hormigoizko bide batek Balmasedako Udaletxeko eta elizako plazara bideratuko gaitu.

RECORRIDO: TURTZIOZ – KOLITZA – GARBEA – BALMASEDA.

Comenzamos la excursión junto a una pequeña central eléctrica, cerca de la estación de FEVE de Villaverde de Trucios. Contigua a la central parte una pista de hormigón que asciende hacia unos edificios y a la vía férrea. Cruzamos la vía y tendremos que continuar por la pista durante un buen trecho. Después de pasar junto a varios caseríos, en el primer cruce continuamos por la derecha, siguiendo siempre la pista de hormigón. Caminamos dirección Sur, dejando a nuestra espalda el Valle de Villaverde y la sierra de Jorrios. Nos hallamos en la vertiente Oeste de los montes San Miguel y Untzilla. Al Sur podemos observar la silueta de Kolutza y su ermita en la cima. Pronto llegamos a otro cruce, en esta ocasión seguimos por la izquierda, en el siguiente cruce seguiremos por la derecha hasta llegar a unos edificios en ruinas en el paraje de El Covarón.

En este lugar abandonamos la pista de hormigón y tomamos una amplia pista de gravilla que asciende hacia la izquierda. En una cerrada curva a la izquierda parte un camino, ahora tenemos que dejar la pista y continuar por este camino que se adentra en un pinar en las laderas del monte Untzilla. Más adelante vuelve a unirse a la pista por la cual continuaremos ascendiendo. El camino realiza las curvas y giros del terreno y en ocasiones parece que nos alejamos de nuestro objetivo. Llegamos al collado al pie de Untzilla.

Continuamos por la pista en dirección al cada vez más cercano Kolutza. Antes de llegar al pie de la cima de Kolutza pasamos junto a una fuente en el borde del camino. Una vez alcanzado el collado superior hay que tomar el camino que a derecha se dirige al tramo final de la ascensión. Un sendero bien definido va trazando zig-zag y supera esta fuerte pendiente hasta alcanzar la cima de Kolutza (879 m) y su ermita.

Para ir a Garbea descendemos por el mismo sendero, pero hacia la mitad de la bajada tomamos un camino que baja hacia la derecha, encontraremos un tramo con escalones, y se dirige hacia el collado. En el punto de encuentro de este camino y la pista que desciende del collado superior se encuentra la fuente de Kolutza. Cruzamos la pista y continuamos descendiendo por un sendero con escalones hasta un collado con una pequeña balsa y el amplio collado de Campo del Espino.

A partir de este lugar tenemos que continuar caminado sobre un largo cordal que nos conducirá hasta la cima de Garbea, coronada por varias antenas. En el primer tramo de este cordal pasamos por el alto de La Ginea y descendemos al área de descanso de La Porqueriza. Seguidamente se supera una corta rampa y continuamos ascendiendo por el paraje de Los Campazos, que apenas muestra desnivel. Pasamos la cota de Pico de Mojón. Las antenas de la cima de Garbea no se dejan ver hasta estar prácticamente cerca de la cima. En el último tramo dejamos el camino y ascendemos por la herbosa ladera hacia la loma coronada por unos árboles, se trata de una de las dos cimas del monte Garbea. Continuamos hacia las cercanas antenas y junto a una de ellas encontraremos el buzón y el vértice geodésico de Garbea (717 m).

Para descender a Balmaseda tenemos que retroceder hasta el ensanchamiento de la pista previo a las antenas. En este lugar, junto a un poste de PR, tenemos que descender hacia la izquierda por la ladera. Un poco más abajo llegamos a un camino y continuamos por él siguiendo las marcas de PR. Pasamos junto a una fuente en el camino y un poco más abajo podemos cruzar el alambrado para tomar un corto atajo. Siguiendo la PR llegamos a un cruce de varios caminos. Hay que continuar por la amplia pista de la derecha. Más abajo se ve una pequeña loma herbosa y hay que bajar hacia ella. Llegamos a una pista de hormigón y continuamos por ella hacia la derecha bordeando la mencionada loma. Encontraremos dos caseríos, junto al segundo de ellos un camino de hormigón de muy pronunciada pendiente nos conducirá hasta la plaza del ayuntamiento y la iglesia de Balmaseda.